

CENOZ, J. (2009)

Towards Multilingual Education. Basque Educational Research from an International Perspective. Bristol: Multilingual Matters.

Liburu honetan Euskal Autonomia Elkargoko Hezkuntza Eredu Eleaniztuna azaltzen da, luze eta zabal, J. Cenozen eskutik.

Egilea, Jasone Cenoz, EHUko Hezkuntza Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoen Saileko irakasle katedraduna da. Halaber nazioarteko aldizkarietan argitaratutako hamaika liburu eta artikuluren egilea, gehienak Elebitasuna eta Eleaniztasuna giza-gertaerei buruz. Aipatu behar ere bai, *International Journal of Multilingualism* nazio-arteko aldizkariaren editorea dela.

Orri hauetan aipatzen ari garen argitalpen honekin Cenozek hainbat urtetako ikerketa-esperientziaren emaitza zientifikoa bildu du eta komunitate zientifikoaren esku jarri. Alegia, orain arte Euskal Komunitateko Eleaniztasunari buruz bildutako jakintza zientifikoa, entziklopedia txiki baten tankera duen liburu honetan jaso du.

Ingelesez argitaratutako liburu honetan, Euskal Autonomia Elkargoko Hezkuntza sistema azaltzen da programa eta proiektu eleaniztun anitz eta desberdinetan oinarritutako errealitate dinamiko eta aberatsa bezala. Cenozek azaltzen duen bezala, eleaniztasunerako laborategi honek oso lorpen garrantzitsuak erakutsi ditzake nazio artean, baina,aldi berean, oso erronka interesgarriak jarriak ditu geroari begira. Liburuan gaurkotasan handiko gai garrantzitsuak jorratzen dira: hasierako ataletan eleaniztasunari buruz azken urteetan eraikitako teoria zientifikoaren errepasoa egiten da: eleaniztasunaren zergatiak eta adierak, hezkuntza eleanitzaren ereduak, faktoreak eta aldagaiak. Hauek eginda erabat murgiltzen da gure Hezkuntza Ereduaren analisisan, disezio zehatza eta or-hartzailea eginez. Beldur gabe esan dezakegu egun dauzkagun erronka garrantzitsu guztiak besarkatzen dituela testu

honek, besteak beste honakoak: ama hizkuntzaren rola, inmersio programak, hirugarren hizkuntza (ingeleza bereziki), hirugarren hizkuntzaren eta elebitasunaren arteko elkarreragina, hirugarren hizkuntzaren iraka-ikaskuntza, hizkuntzen irakaskuntza gai bezala zein hizkuntza behikularra bezala, identitateak eta jokabideak, adinaren faktorearen eragina, elebi eta eleaniztasuna unibertsitatean. Jorratze-lan honetan Cenozek aditasun berezia eskaintzen die orain arte ditugun ikerketa eta ebaluazio garrantzitsuenei (Pisa, Timss, e.a.).

Honetaz gain egileak «Continua of Multilingual Education» izeneko eredia proposatzen du, hezkuntza eleaniztuneko testuinguru desberdinak analizatzeko oso tresna baliagarritzat jo dezakeguna. Eredu hau euskal komunitateko giza-testuinguru elebi eta eleanitzak analizatzeko ez-ezik, nazioartekotasunean aplikatzeko baliogarria izan daiteke ere bai. Honekin lotuta oso hausnarketa interesgarria egiten du hezkuntza kultur-anitzaren inguruko ikerketari buruz, zergati askotako ikerketa-ereduen aldeko aldarria eginez.

Liburuaren idaztankerari dagokionean oso didaktikoa dela esan dezakegu: testua ondo ordenatua, irudi eta taulez osatua eta atal bakoitzeko, mamiez gain, sarrera, ondorioak eta hitz gakoak azpialak idatzita daude, diziplina handiaz.

Honenbestez, nazio arteko zein euskal hezkuntza elebidun eta eleaniztasunari buruzko interesa duten guztiek, ikasle, irakasle zein ikertzaile, balio handiko lana topatuko dute liburu honetan.

Xabier Etxague

GARCÍA ARETIO, L., RUIZ CORBELLA M., GARCÍA BLANCO M. (2009)

Claves para la Educación. Actores, agentes y escenarios en la sociedad actual. Madrid: Narcea.

Pedagogia garaikideari dagozkion sakoneko arazo teorikoak kritikoki ulertzeko, baliagarri eta ezinbestekoak diren gakoak ematen dizkigute, elkarlanean idatzi duten lan honetan, UNED-UHUN-eko irakasle diren Lorenzo Garcíaak, doktore eta Katedratikoa, Marta Ruiz Corbellak, Irakasle Titularra, eta Miriam García Blancok.

Irakasle hauek Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko - Universidad de Educación a Distancia, UNED- UHUN-eko Hezkuntzaren Teoria eta Gizarte Pedagogiako Departamenduan lan egiten dute. Hiruretatik bat aipatzearen, Lorenzo Garcíaen curriculum aipatuko dugu: UHUN-eko irakaslea da azken 25 urteetan eta gestio karguetan egon da ia gehienetan, Dekanoa da baita 2003tik aurrera eta 20 ikerketa proiektuetan baino gehiagotan parte hartu izan du, sarritan ikertzaile nagusi bezala; *Educación XXI*

eta RIED aldizkarien zuzendaria, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko, UNESCO katedrako Zuzendaria, berak idatzitako liburuak eta artikulua guriak izan dira. Beste autoreen curriculumak ere bikainak dira.

Autore hauek hezkuntzaren gakoak aipatzerakoan bereziki honako gaiak aztertzen dituzte: hezkuntza errealitate bezala; jarduera hezitzailearen oinarri pedagogikoak; hezkuntza prozesu bezala eta eragileen eta protagonisten arteko elkarrekintza; hezkuntzaren eragileak eta bere profesionalizazioaren prozesua; hezkuntzaren aktoreak; hezkuntzaren eszena tokiak; hezkuntzaren giza funtzioa eta helburuak eta balioak; ekimen hezitzaile eta ekimen pedagogikoaren arteko osagarritasuna; hezkuntza gogoeta zientifikoaren helburu bezala; Europaren konpromisoa hezkuntzarekiko eta urrutiko hezkuntza, egungo jakintzaren gizarterako beharrerako egokitzen den eredia.

Hau guztia hamalau kapituluetan garatzen dute. Analisi batzuk oso landuak dira hezkuntzaren analisisan, beste batzuetan bere ekarpena berri-tzailea ikusten da. Bi kapitulu nabarmentzerakoan 3. kapitulua, Hezkuntza prozesu bezala, eta 9. kapitulua nabarmenduko nituzke. Azken honetan, Hezkuntzaren xede eta balioak, beste gai batzuen artean irakur gomenda-garriak dira honako atalak: hezkuntzaren zentsua eta xedeen proposamena, ezkutuko curriculumak, hezkuntza baloreen zeregina bezala. Kapitulu hone-tan balorearen kontzeptuan egoki sakontzen du.

Bukatzeko azken hiru kapituluetan gaurko gizartean hezkuntzak dituen erronkei, aldaketei eta kontraesanei buruz aritzen da. Analisi honetatik abiatuz autore hauek egungo gizartearen, errealitatearen, behar eta eskakizunen kon-plexutasunak, eta parte-hartzeko esparru berriak irekitzeko pedagogiko eta hezi-tzaileak ildo berriak urratzera bultzatzen ditu. Honek guztian zera exijitzen du, eguneroko lan ekimenean profesionalek oinarri sendoak izatea, ongi formatuak egotea. Behar beharrezko diren konpetentzi teknikoetan ongi formatuak egotea.

Hezitzaile bezala, formazioan garatzeko egokia da autore hauek pla-zaratu duten 340 orriko liburu hau, sakon eta era errazean azaltzen baititu hezkuntzaren gakoak. Beraz Hezkuntza Fakultateetan, Gradu berrietan lan-tzeko, egokia testu dela esan genezake.

Joxe Garmendia

SAENZ DE ACEDO, M.L. (2010)

Competencias cognitivas en Educación Superior. Madril: Narcea

Berriro Narcea argitaletxearen eskutik hona hemen «Unibertsitaria» bilduman konpetentziak ardatz eta gai nagusizat hartuta honako liburu interesgarri eta gaurkotasan handikoa. Bilduma honetakoak unibertsitateko irakasle zein ikasleei zuzenduak badira ere, oraingo honetan egileak propio

zabaltzen du gonbitea unibertsitate ikasketak edota lan-mundurako ikasleak prestatu nahi dituzten Batxilergo eta D.B.H.ko irakasleei ere.

Zazpi ataletan dago antolatuta, europar eremuak eskatzen dituen beharretara egokitzeko laguntza eskainiz; lehenbizikoan kompetenziaren konzeptualizazioa jorratzen du, baita sailkapena, kompetenzien aldatzeko eta egokitzeko aukera eta azkenean hauen ebaluaketa, hots, ezinbesteko oinarria eta abiapuntua hurrengo ataletarako. Hiru atal esanguratsu dira segidakoak: 2. *Informazioa ulertzeko halabeharrezko kompetentziak: pentsaera ulerkerria*; 3. *Informazioa ebaluatzeko halabeharrezko kompetentziak: pentsaera kritikoa* eta 4. *Informazioa sortzeko halabeharrezko kompetentziak: sormenezko pentsaera*. Atal bakoitzean eskema bera jarraitzen du: kontzeptuak argitu eta gero horiei dagozkien kompetentziak deskribatu eta sailkatze progresiboa ematen dela agerian jarri ere.

Bosgarren atalak beste urrats bat eskaintzen du: *Erabakiak hartzea eta arazoak konpontzea: kompetentzia konplexuak* eta esan dezakegu izenburua ezin adierazgarria dela. Erabakiak hartzeko faseak aztertzen baditu ere, garrantzia handia jartzen du arazo bati irtenbide egokia eta eraginkorra ematerakoan berau konpontzeko hartzen den erabakiak funtsezko papera jokatzen duela.

Hurrengo atalean baliabide kognitiboei buruz dihardu: hauek identifikatu eta bakoitzak kompetenzien garapenari zer ekarpen egin dezakeen azaltzen du, alegia, ez da nahikoa halako kompetentzia erakutsi eta praktikatu, ikasleak berak kompetenziaren inguruan hausnartu beharko du, berau barneratu, bere ikasketa prozesua kontrolatu eta lorpenak arlo akademiko-tik haratago eramateko gai izan beharko da.

Azken atalean *Kompetentzia kognitiboak erakustea: parte hartzeko zenbait forma* izenburupean irakasle zein ikasleari ikas/irakats-prozesuan lagundu nahi dio zenbait orientabide psikologiko eskainiz eta modu zehatzean P.A.E.A. metodoa («Pensar Activamente en Entornos Académicos») proposatzen du. Irakasgai bat nola ikasi, ikasketa prozesuan galderen garrantzia, sormena pizteko eta ikasteko estrategiak, teknologia berriak... bada gure arreta eta interesa bideratzeko aukerarik. Eta liburua borobiltzeko azken ondorio batzuk eskaintzen ditu laburpen gisa uler daitezkeenak.

Kompetentzia kognitiboak liburuaren ardatza, bai, baina egileak ez du liburura bukatu nahi agerian jarri gabe mota honetakoek sozio-afektiboekin eta teknologikoekin duten erlazioa, azken hauek ere martxan jar daitezkeela hemen proposaturiko metodoekin kontutan hartuz gero.

Nagusiki unibertsitate eremuan kokatuta, ikas-irakats prozesuetan murgilduta dabilenari bere buruari oinarritzko galdera batzuk bideratzeko aukera ematen dio eta eguneroko jarduerarako ideia interesgarri eta aukera ugari aurki daitezke liburu erabilgarri eta samur (159 or.koa) honetan.

J.M. Montero

ARELLANO, J. y SANTOYO, M. (2009)

Investigar con Mapas Conceptuales. Madrid: Narcea.

Mapa Kontzeptualak alderdi desberdinetatik begiratuta erabil litezke. Idazleek, liburu honetan, ikerketa sozialeko prozesu metodologikoei lotzen die mapa kontzeptualen erabilpena. Ikerketarako, oinarrizko herramienta edo tresnatzat jotzen dutelarik.

Egin beharreko zereginetan, besteak beste, etorkizuneko profesionalen prestakuntza dago, eta honetarako mapa kontzeptualen erabilpena aldarrikatzen dute ikerketa sozialaren metodologiaren ikaskuntza-irakaskuntza eremurako.

Ikerketaren eraikuntza prozesuan mapa kontzeptualak duen ezaugarri estrukturalak argitara jartzen du ikerketaren egituraren osagaien arteko erlazioa, eta bide batez, kontzeptuen artekoa ere. Beraz, bide metodologiko honen arrakasta eta onura azaltzen dira bai ikerkuntza nola irakaskuntza eremurako.

Egileen ustez irakaskuntzak lotura sendoa du ikerketarekin, batez ere, landa praktikak bere lekua hartzen duen kasuan. Eta honek eskatzen duen prozesu osoaren garapenerako bide aproposa eskaintzen du Mapa Kontzeptualen erabilpenak.

Bide batez, ikasleek egingo duten ikas prozesua bera ere esanguratsuagoa izango den defentsa egiten dute. Beraz, amaitzeko, esan behar da liburuko planteamenduan argi geratzen dela ikaskuntza esanguratsua eta ezagutzaren eraikuntzaren arteko harreman estua. Aurkeztu eta argudiatu duten Ikuspegiak, kontzeptuen arteko erlazioak eta ezagutza berrien prozesuak irekitzeko, Mapa-Kontzeptualak duen eragingarritasuna garbi uzten du.

Feli Etxeberria Sagastume

JASOTAKO LIBURUAK

LÓPEZ BARAJAS ZAYAS, E. (coord..) (2009)

El paradigma de la educación continua. Reto del siglo XXI. Madrid: Narcea. UNED

SARRATE, M. A. ETA HERNANDO, M. A. (2009)

Intervención en Pedagogía Social. Espacios y metodologías. Madrid: Narcea. UNED